

euskararen berripapera



198

Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak jaso du **Ukan 2008 Saria**

Euskararen Nazioarteko Egunean, abenduaren 3an, banatu ziren sariak Gasteizen Lehendakartzaren egoitzan. Aipamen berezia jaso zuten Eroski, Ikea eta Microsoft enpresek.



Argazki Press

Ukan 2008 eta hiru aipamen bereziekin saritutakoak.

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko Eusko Jaur-laritzak Gasteizen egindako ekitaldian 150 bat lagun bildu ziren eta egunak ospakizun giroa eskatzen bazuen ere, prestatuta zeuden hainbat saio bertan behera geratu ziren Azpeitiko (Gipuzkoa) atentatuagatik, zeinetan ETAK Inazio Uria Mendizabal hil zuen. Atentatua irmoki gaitzetsi egin zuen Miren Azkarate Kultura sailburu eta Eusko Jaur-laritzaren bozeramaileak: «Triste gaude, zeharo, baina inola ere ez etsita. Hiltzaileen basakeriak ezin digulako zuzen pentsatzeko ahalmena ahuldu. Ezin diegulako gure itsumena oparitu». «Zinismo hiltzaileak, euskararen herriari eraso» adierazpena irakurri zuen. Besteak beste, zentzugabeko bortizkeriaren aurrean euskarak eta euskalgintzak hain beharrezkoa duen adostasuna eta jardun demokrati-koaren beharra aldarrikatu zuen: «Euskal gizarte eleanitz baten helburuarekin euskara biziberritzearen alde lanean ari garenek ongi asko baitakigu adostasuna dela bidea, eta ez bateko zein besteko indarkeria. Ongi baitakigu zenbateko lan eta ahalegina eskatzen duen eraikitzeak, eta zein tragikoki erraza den zernahi birrintzea. Ongi baitakigu ez dela inor sobra euskararen herrian, gizartean bizitzeko ezinbestekoak diren balio etiko-politikoak bereganatzeko kultura zibil nahikoa ez duena izan ezik. Ez diezaiegun utzi hiltzaileei gure eguneroko jardun demokrati-koa hain berezkoa duten zinismo hiltzaileaz zikintzen».

Hori irakurritakoan, minutu bateko isilunea egin zen eta, jarraian, sari-banaketari ekin zitzaion.

Ekitaldian, euskarari ekarpen esanguratsua eskaini dioten pertsona eta erakundeei eman ohi zaien Ukan Saria eta hiru aipamen berezi banatu ziren. Aurten 25. urteurrena bete duen **Arrasate Euskaldun Dezagun** elkarteak jaso zuen 2008ko Ukan Saria, euskara elkarte mugimenduaren aitzindari izanagatik, berritzaile eta bide-erakusle izanagatik eta euskarak, euskararen munduak eta euskalgintzak desiragarri ez ezik nahitaezkoa duten zabaltasunaren aldeko jarrera ere hasieratik erakutsi izanagatik. Hiru aipamen bereziak eta horretarako epaimahaiak azpimarratutako merezimenduak berriz, ondokoak izan ziren: 1) **Eroski kooperatiba elkarte**a, *Consumer Eroski* kontsumitzaileentzako aldizkariaren euskarazko bertsioa berriaz egin eta zabaldu izanagatik; 2) **Ikea**, hain onarpen zabala duen urteko katalogoaren euskarazko bertsioa lehen aldiz egin eta zabaldu izanagatik; 3) **Microsoft**, Windows Vista sistema eragilea eta Office 2007 bulegotika-paketea euskaraz plazaratu izanagatik.

Hizkuntzen Nazioarteko Urtea eta berrikuntza

Kultura sailburuordeak bi kontu azpimarratu zituen 2008 urteari begira. Batetik, adierazi zuen hizkuntzaren-tzat urte berezia izan dela 2008a, Hizkuntzen Nazioarteko Urtea izan delako eta bestetik, EAEn berrikuntzaren kontzeptua azpimarratu dela gaineratu zuen. Berrikuntzak eleanitzasuna dakarrela adierazi zuen. Azpimarratu zuen, era berean, *Euskara 21* egitasmoaren garrantzia, gogoeta eta eztabaida prozesu horren egitekoa. Adierazi zuen urte berrirako zehaztuko zirela XXI. mende hasierako hizkuntza-politikaren oinarriak.

Ondoko orrietan Eusko Jaur-laritzak, hiru foru aldundiek eta EUDELeK Nazioarteko Euskararen Egunearen kariatara egindako Adierazpen Instituzionala osorik irakur dezakezue ●

Euskararen Nazioarteko Eguna

2008ko abenduak 3

Adierazpen Instituzionala

Euskararen Nazioarteko Eguna urtero gogorarazten dizkigu Mitxelena handiaren hitz guztiz egoki haiek: “Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia”.

Hitz gogoangarri horiek aurtengo ospakizunean hartzen dute, agian, oihartzunik beteena. Izan ere, Hizkuntzen Nazioarteko Urtea den 2008 honen hasieran, Eusko Jaurlearitzako, Kataluniako Generalitateko eta Galiziako Xuntako hizkuntza-politikarako arduradunek hizkuntza-aniztasunaren aldeko Pariseko Adierazpena sinatu zuten, nazioarteko foroetan, besteak beste, honako hau aldarrikatzeko: “hizkuntza-aniztasuna Europar Batasunaren balio oinarritzaileko bat da, eta, halaber, baita Europa batu eta anitz baten aldeko berme sendoa ere”.

Aldarrikapen positibo horrekin batera, eta aniztasun linguistikoaren aldeko jarrerarekin koherentziaz jokatzuz, aipatu adierazpenak arbuia egiten zituen “hizkuntza-aukerak baliatuz jokabide diskriminatzaileak eragiten edo babesten dituen praktikak oro”.

Utikan inposaketa, beraz, hizkuntza-politikatik, gaztelania nahiz euskara, zeinahi delarik ere, inposatu nahi litzatekeen hizkuntza. Bazter dezagun, hortaz, hurkoaren hizkuntza-aukera zapuzteko tentazioa, baita euskararen balizko mesedetan ere. Euskararen kontrako inposaketa nozitu duen gizarte honek ondo daki ez dela inposaketaren bidea euskararen erabateko biziberritzearaino eramango gaituena. Erne, baina: euskara biziberritzeko egiten den guztia batzuentzat gutxiegi den bezala, beste batzuentzat, berriz, dena da gehiegi, eta euskararen erabilera bultzatzeko eta herritarrek euskaraz bizitzeko duten eskubidea bermatzeko hartzen den neurri

oro, edo ia oro, inposaketatzat deskalifikatu ohi dute bidegabeki, inola ere inposaketa ez direnean. Izan ere, beste zerbait ere aldarrikatu behar dugu irmotasun berberaz: benetako elebitasunaren aldeko hizkuntza-politika eragingarri batek, ezinbestez, betebeharrak dakartza, eta betebeharrak horiek, bereziki, hizkuntza ahulagoaren zaintza eta sustapenari lotzen zaizkio, berau delako esparru, funtzio eta hiztunak irabazi behar dituenak. Betebeharrak horiek, gainera, adostasunaren fruitu umotua izan behar dute, gizarte bizitzan benetako eraginik izango badute. Adostu beharrekoak, beraz, euskararen sustapenerako, eta eleaniztasunaren ikuspegitik, ezarri beharreko betebeharren nolakotasuna eta erritmoak dira, ez euskararen eta elebitasunaren aldeko politika publikorik behar den edo ez den. Alor honetan, iruzur nabaria baita eskaintza-eskaria balizko legeen esku uztea hizkuntzen bilakabidea eta hizkuntzen arteko bizikidetzak.

Okerra ez ezik, faltsua ere bai baita hizkuntza alorreko arau ezaren aldarria. Are faltsuagoa eta okerragoa, alor horretako araupetzeari zilegitasuna ukatzen dion diskurtsoa. Eta faltsutik maltzurerrainoko jauzia egiten du arautzea eta inposaketa berdindu nahi dituenak. Eleaniztasunak, guk nahi dugun eleaniztasun orekatuak bederen, alor publikoan gauzatzen diren hizkuntza-jokabideak arautzea eskatzen du, arau ezak hizkuntza sendoenaren alde egiten baitu berez eta ezinbestez. Ez dezagun ahaztu gizartearen ahotsa eta arauaren beraren izaera demokratikoa direla arau ororen zilegitasunaren iturburua. Inposaketaren antipodetan dago, beraz, araupetze demokratikoa, eta horren premia dugu, nahitaez, euskararen erabilera areagotu eta esparru berrietara hedatzeko xedez diseinaturiko hizkuntza-politika historikoki aurrerakoia mamitzeko.

Nolanahi ere, aitor dezagun, berandu baino lehen, arauak ez direla, honetan ere, aski. Urik gabeko uberka baita, atxikimendurik gabe, araua: sorora iritsita ere, lurra emankortzeko ahalmenik ez. Baina erro politikoak, kulturalak edo sozialak izanik ere, baldintza garbi batzuk bete behar ditu euskarak behar eta guk onar genezakeen atxikimendu mota bakarrak: bateratzailea izan behar du, kohesioa sortu behar baitu, eta ez zatiketa; zabala izan behar du, aniztasunetik ateratzen baitu euskarak aurrera egiteko kemena, eta ez afinitatezko berdinkeriatik. Hitz batean, naturaltasuna arnasten duen atxikimendua behar du euskarak, euskal herritartasuna pentsatu eta bizitzeko norberak duen modu partikularrarekin berez eta samur uztartzen dena.

Azken batean, hizkuntza minorizatu bat normaltasunera ateratzeko, ezinbestekoa da hizkuntza horrentzako bizigiro egokia lortzea, eta bizigiro hori sortzen eta mantentzen, euskal gizartea osatzen dugun guztiok –euskal hiztun izan edo ez– konprometitu behar gara, nor bere hizkuntza-aukerari uko egin gabe, noski, baina baita ere hurkoarena erraztuz. Euskarak, jakina, nahitaezkoa du gizarte osoaren konpromiso hori. Kontua ez baita euskararen biziraupen nolabaiteko bat bermatzea, baizik eta euskara etengabeko hazkunderako bide oparoan jartzea. Hori da eleaniztasunera garamatzen hizkuntza-politika demokratiko batentzat helbururik egokiena.

Helburu horrek, ordea, dei berezia egiten die gure herrikide elebakarrei. Eleaniztasun orekatuaren eta, beraz, hizkuntza-normalkuntzaren bidean aurrera egiteko, elebakarrek urratsak eman behar dituzte euskararantz. Ezin zaio-eta euskarari bermatu ezinbestekoa duen arnasa, gutariko bakoitza ez bada, bere hizkuntza-aukera pertsonala zeinahi delarik ere, euskaraz ari denaren jarduna ez oztopatzeko gauza. Errespetu praktikoa horretatik, eta ez beste inondik, dator eleaniztasunaren bideragarritasuna. Gurean eta edonon.

Era berean, euskararen aldeko hizkuntza-politika batek ezin du sekulan inongo erdara, are gutxiago erdal mundua, etsaitzat hartu. Eta ez soilik balizko etsaigo horretatik euskarak berak jasoko lituzkeelako kalterik handienak. Horrez gain, eta nagusiki, kontrasan jasanezina litzatekeelako gure herriaren kohesio-arekiko. Izan ere, euskal herritarrok osatzen dugun gizarte bakar honetan mundu ugari bizi dira aldi eta toki berean, eta denak dira elkarren osagarriak. Hau da, erdal mundua indartu egiten da euskarari babesa emanez, euskal mundua indartu egiten den bezala erdarekiko bizikidetzat gogo onez onetsiz. Bere baitan mundu ugari izateaz gain, bere baitako mundu horiez guztiez harro sentitzen den herria delako gurea. Horretatik, besteak beste, izan nahi du egiazki eleaniztasun gure gizarteak, eleaniztasunarekin denok irabazten baitugu, inork ezer galdu gabe. Euskarari bizkar emanda, berriz, ez dago ezer irabazteko. Bai, ordea, galtzeko. Galtzaile, gainera, denok ginateke euskarari bizkar emanda biziz gero, eta denok irabazle, aldiz, euskarari gure bizitzan eta gizartean behar duen tokia eginez gero. Horretan baitatza, azken finean, herri bat izatea.

Hizkuntzen arteko harreman sanoen bidetik, ez beste inondik, bilatuko du, beraz, euskarak Mitxelena opa zion hizkuntzen arteko tokia.

Eta lankidetzat da, helburu horretarainoko bidean, gakoa; hizkuntza-politika ireki eta eragingarria gidari duen lankidetzat. Horixe baita, azken batean, euskal herri erakundeoi alor honetan dagokigun zeregina: eleaniztasun orekatuaren bidean, euskal herritar guztiontzako toki egokirik duen euskara biziberritzeko politika adostua eta eraginkorra diseinatu, eraberritu eta gauzatzea.

Horren aldekoa da gaur, beraz, Euskararen Nazioarteko Egunean eta Mitxelenaren asmo zuhurra gogoan, euskal herri erakundeok aldarrikatzen dugun konpromisoa: adostasuna, atxikimendua, erabilera ●



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

2008



Hizkuntza- -politika gaietarako hitzarmen orokorra



Eusko Jaurlaritzak, Kataluniako Generalitateak eta Galiziako Xuntak 2007ko martxoan sinatu zuten hizkuntza-politika gaietarako hitzarmen orokorrari **Balear Uharteetako Gobernuak** atxiki zaio. Lau gobernuetako Hizkuntza Politikarako arduradun nagusiek azaroaren 27an izenpetu zuten akordioa Palman.

Lau gobernuak berezko hizkuntzak (euskara, katalana eta galegoa) biziberritzeko eta haien erabilera normalizatzeko konpromisoa erakutsi dute. Elkarlan horri esker, esperientziak trukatu eta aztertu, eta egitasmoak bultzatuko dituzte hizkuntzen arteko berdintasun sozial handigoa lortzeko xedearekin.

Hitzarmenean, lau gobernuak adierazi dute Espainiako estatuan biztanleen % 40a gaztelania ez beste hizkuntza ofizial berezkoa duten erkidegoetan bizi dela, Espainia estatu eleanitza dela eta beraz, eleanitzasun hori aitortu eta berezko hizkuntza horien erabilera errespetatu eta sustatu behar dela.

Palman sinatu duten akordioaren bitartez, Espainiako estatuak eta Europar Batasunak ofizialak diren hizkuntzak babesteko eta erabiltzeko neurriak har ditzaten bultzatuko dute ●

Lankidetzaz HPS eta EHUren artean

Berriki, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak hitzarmena sinatu du Euskal Herriko Unibertsitatearekin. Hiru urteko iraupena (2008-2010) duen hitzarmen honen bidez aipaturiko unibertsitateko **Euskara Institutuak** 30.000 euro jasoko ditu urtero. Diru horrekin zein EHU eta beste zenbait erakunde eta enpresatik jasotako laguntzari esker, aipaturiko Institutuak hainbat egitasmori ekingo dio. Besteak beste, honako hauei: *Hiztegi Batua Euskal Prosan* (HBEP) eta *Egungo Euskararen Hiztegia* (EEH) izeneko hiztegiei, eta *Euskal Gramatika Sarean* (SEG) izeneko egitasmoari ●

Telefonoak badaki euskaraz. Anima zaitez!



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta telefonia operadore eta fabrikatzaile nagusiek **“Telefonoak badaki euskaraz. Anima zaitez!”** kanpaina abiatu dute. Urtarrilaren 5a bitartean telebistetan, irrati-tan zein egunkarietan izango dira ikusgai eta entzungai lelo horrekin prestatutako iragarkiak.

Kanpaina hau, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Eroski, Euskaltel, Telefónica, Vodafone, Yoigo eta Orange operadoreek zein Alcatel, Nokia, Samsung eta Sony Ericsson fabrikatzaileek sinatutako lankidetzaz-hitzarmenaren fruitua da. Aipaturiko enpresek, telefonia mugikorrean euskara progresiboki eta pixkanaka sustatzeko konpromisoa hartu zuten 2007ko urrian sinatutako hitzarmenean.

Patxi Baztarrika HPSko buruak lankidetzaren garrantzia azpimarratu du, euskarak hiztunak, erabiltzaileak behar baititu eta «hiztunek eta erabiltzaileek euskara baliatzeko egiazko aukerak behar-beharrezkoak baitituzte» ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktu-fitxategian sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipaturiko Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saila / Zerbitzu Zuzendaritza / Donostia kalea 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16 • berripapera@ej-gv.es

Legezko gordailua: VI-572-1992
ISSN: 1138-3038

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

